

PROIEKTUAREN ASMOA

ZER LAN MOTA DA HAU?

Komunikazio-proiektu hau R400 ikastaroan sortu dugu, Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei hizkuntza-gaitasuna garatzen laguntzeko.

Proiektuaren bidez, ikasleek zeta-harrei buruzko azalpen-testua prestatuko dute eta 1. mailako ikaskideen aurrean azalduko dute. Horretarako, animalien ezaugarriak, bizi-zikloa, hazkuntza eta erabilerak aztertuko dituzte, eta azalpen-testua sortzeko hainbat hizkuntza-baliabide landuko dituzte.

Zeta-harrak aukeratu ditugu eskola askotan aztergai izaten dituztelako ikasleak animalia baten bizi-zikloaz jabetu daitezen. Normalean, ikasleek gogoz hartzen dute animaliatxoak zaintzeko ardura, eta liluragarri gertatzen zaie horiek izaten dituzten aldaketak zuzenean ikustea. Interes hori abiapuntutzat hartuta, lagunei azaltzeko baliagarria izango den testua sortzea proposatuko diegu.

ZER LANDUKO DUGU PROIEKTUAREN BIDEZ?

Lehen esan dugunez, proiektuaren azken aplikazioa ahozko azalpena izango da. Hortaz, Hizkuntza izango da arlo nagusia. Horrez gain, Inguruaren Ezagueraren zenbait eduki agertuko dira proiektuan zehar.

Hizkuntzari dagokionez, ikasleek aukera izango dute oinarritzko lau trebetasunak lantzeko:

- Idatzizkoaren ulermena landuko dute jasotzen duten informazioa irakurtzen duten bitartean.
- Idatzizko adierazmena informazioa erabiltzen eta aplikatzen duten bakoitzean.
- Ahozkoaren ulermena bideoak eta irakaslearen eta ikaskideen azalpenak entzuten dituztenean.
- Ahozko adierazmena landuko dute taldeko lanetan eta azken azalpena burutzen dutenean.

Bestalde, proiektuak lotura estua du Inguruaren Ezaguera arloarekin. Ikasleek zeta-harrak izango dituzte ikasgelan, eta animaliatxoekin erlazionatutako esperientzia aberasgarriak biziko dituzte; zientzia-ikertzaileak izango dira eta, eginkizun horretan, honako prozedura hauek beteko dituzte:

- Gertaerei antzeman eta aztertu egingo dituzte.
- Zeta-harrek izaten dituzten itxura-alaketak (metamorfosia) zuzenean behatuko dituzte eta, gero, erregistratu egingo dituzte.
- Hipotesiak formulatu eta egiaztatu egingo dituzte.
- Zeta-harren bizi-zikloa hondatu dezaketen egoerak aztertuko dituzte eta ondorioak baloratuko dituzte.
- Beste lurralde bateko ohituren inguruko hausnarketa egingo dute.

Aipatu ditugun arloez gain, beste gaitasun batzuk bereganatuko dituzte ikasleek proiektuaren bidez:

- Aztergaia behatzen, ondorioak ateratzen eta haren berri elkarri ematen ikasiko dute.
- Irudimena landuko dute.
- Taldean lan egiten, ardura hartzen, elkarri laguntzen eta elkarri entzuten ikasiko dute, eta taldekideen izaera eta gaitasunak errespetatzen ere bai.
- Animaliak zaintzeko arduraz jokatzeko ikasiko dute.
- Autoebaluazioaren bidez era autonomoan lan egiten ikasiko dute.
- Emozioei aurre egiten eta publikoaren aurrean ezagutzak era naturalean transmititzen ikasiko dute.

Teknologia berriak ere landuko dituzte proiektuan zehar. *Google Sites* euskarria aukeratu dugu proiektua formatu digitalean aurkezteko. Gero eta tresna digital gehiago ikusten ditugu ikasgeletan, baina nekeza izaten da guztiei etekina ateratzeko materiala topatzea. Beraz, horra hor proiektua formatu digitalean aurkezteko arrazoia. *Google Sites* tresna ezin hobea da pantailan testua, irudiak, soinua eta bideoak bata bestearen ondoan erakusteko; horrez gain, zenbait elementu deskargatzeko aukera ere ematen du.

Eta, bukatzeko, ohar txiki bat: proiektu honetan zenbait testu aurkituko dituzu jardueretako sarrera gisa. Testuok ez dute zertan ordeztu irakasleon jarduna, baina lagundu egingo digute ikasleei eman beharreko azalpenak bideratzen eta proiektuaren egitura eta asmoa ulertzen.